



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

► Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:
Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2019ko uztailaren 11an izan zuen ez ohiko eta premiazko bileran, aho batez, erabaki du erakunde adierazpen hau onartzea:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión extraordinaria y urgente celebrada el 11 de julio de 2019, acuerda, por unanimidad, la aprobación de la siguiente Declaración:

"Ekainaren 28an, 1969an Stonewallen izandako istiluak (New York) gogoan harturik, Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen eta intersexualen eskubideak defendatzeko. Berdintasuna, errespetua, aniztasuna, askatasuna eta tankera horretako balioak sustatzeko eguna da.

"El 28 de junio, en recuerdo a los disturbios de Stonewall (Nueva York) en 1969, se celebra el Día Internacional del Orgullo y la defensa de los derechos de las personas lesbianas, gais, bisexuales, transexuales e intersexuales. Es un día para fomentar valores como la igualdad, el respeto, la diversidad y la libertad.

MAX 004/01

Urteotan guztiotan, ikusi dugu aurrerapenak izan direla LGTBI+ eskubideei dagokienez; nabarmentzekoak dira, esaterako, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak, erregistro agiri ofizialean izena eta sexua aldatu ahal izateko legea, edo Europako egindako hainbat eta hainbat adierazpen, estatu kideei eskatuz utz ditzatela herriarren zati baten diskriminazioan sakontzen duten praktikak.

Durante estos años, hemos podido observar que se han producido avances en cuanto a los derechos LGTBI+, entre los que destacan la legalización de los matrimonios entre personas del mismo sexo, la ley de modificación registral de nombre y sexo en los documentos oficiales, o diferentes declaraciones a nivel europeo instando a los países miembros a cesar en prácticas que ahondan en esa discriminación de parte de la ciudadanía.

Hala eta guztiz ere, eskubide horien onarpena ez da igaro onarpen formal hutsetik, eta, zoritzarrez, batzuetan ez da behar adina berme komunitate honen eskubideak egiaz errespetatzaileen; izan ere, aldi horretan bertan, LGTBI+ komunitatearen helburuok lortu diren herrialdeetan, uste bat sortu da, berdintasuneko gizarte batean bizi garela pentsarazten diguna. Eta, horren ondorioz, herrialde horietako askok eta askok bertan behera utzi dute LGTBI+ eskubideak lortzeko borroka, sinetsirik eginda dagoela egin beharreko guztia.

Sin embargo, en muchos casos el reconocimiento de estos derechos no ha pasado de ser un reconocimiento formal, que por desgracia en ocasiones no es suficiente garantía para que los derechos de esta comunidad sean efectivamente respetados, ya que durante ese mismo periodo, se ha creado en los países en los que se han logrado esos objetivos formales de la comunidad LGTBI+ la falsa creencia de que vivimos en una sociedad igualitaria y, producto de ello, muchos de esos países abandonan la lucha en favor de la consecución de los derechos



LGTBI+, persuadidos de que todo lo que debía hacerse ya está hecho.

Orain ia 40 urte, gure historiako aro ilun bat gainditu nahirik, homosexualitateak legez kanpoko izateari utzi zion, eta halaxe amaitu ziren hamarkada luzeetan zehar sexu eta genero baldintza hutsagatik izandako gaitzespenak, umiliazioak, espeluzneratzeak eta kriminalizazioa. Hori dela eta, garrantzitsua da Donostiako Udalak duen konpromiso publikoa nabarmentzea eta oroitzea, aitortuz zer-nolako ekarpen erabakigarria egin duten gizarte erakundeek eta legeriak bizikidetzarako, gizarte kohesiorako eta gure gizartea aurrera egiteko, bereziki nabarmenduz azken 40 urteotan LGTBI+ kolektiboen anitzasuna osatzen duten pertsonen normalizazio sozialean lortu diren aurrerapenak.

Denbora honetan zehar, gizartea eta erakundeek berdintasuna eta diskriminaziorik eza ipini dituzte beren jarduera esparru nagusien artean, eta ahaleginak egin dituzte pertsona guztien egiazko beharrizanei erantzungo dieten neurriak garatzeko, guztia ere errespetuzko ekintzak sustatz, oinarritzko eskubideak halaxe aitortuz eta diskriminazioaren aurrean erabateko babes aultzatuz.

Baina oraindik ere ez dira desagertu umiliazioak eta mespretzuak. Estate baterako, trans pertsonak oraindik ere patologizatutat hartzen dira, eta gaixo mental gisa jotzen ditu Espainiako Estatuan indarrean jarraitzen duen 05/2007 Legeak, izena eta sexua zuzentzeakoak, zeinak diskriminatu egiten baititu Espainiako herritartasuna ez duten adingabeak eta pertsonak. Beste horrenbeste Euskadiko transexualitateari buruzko lege integralari dagokionez ere. Euskadi da, hain zuzen, LGTBI+fobia salaketa gehien jasotzen duen autonomia erkidegoa. Despenalizazioa, zalantzarik gabe, urrats handia da, baina oraindik ere bide luzea dute aurrez aurre gizartea eta erakundeek.

*Hori dela eta, udal taldeok honako **ADIERAZPEN INSTITUZIONAL** hau aurkezten dugu, **LGTBI+ anitzasunaren eta***

Hace ya 40 años, que tratando de superar una etapa oscura de nuestra historia, cesaba la ilegalidad de la homosexualidad, poniéndose fin a décadas de desprecio, humillación, encarcelamiento y criminalización de personas por su condición sexual y de género. Es por ello importante, resaltar y conmemorar el compromiso público de este Ayuntamiento con la igualdad, reconociendo la determinante contribución que las organizaciones sociales y la legislación ha supuesto para la convivencia, la cohesión social y el avance de nuestra sociedad, subrayando los progresos que se han alcanzado a lo largo de estos últimos 40 años, en favor de la normalización social de las personas que integran la diversidad de los colectivos LGTBI.

Durante este tiempo, la sociedad y las instituciones han hecho de la igualdad y la no discriminación uno de sus ámbitos de actuación prioritarios realizando esfuerzos para desarrollar medidas que atiendan a las necesidades reales de todas las personas, promoviendo acciones de respeto, reconociendo los derechos fundamentales como tales e impulsando la protección plena frente a la discriminación.

Pero las humillaciones y desprecios todavía no han desaparecido. Por ejemplo, las personas trans aún hoy día siguen siendo patologizadas y consideradas enfermas mentales por la ley 05/2007 de rectificación de nombre y sexo, vigente actualmente en el Estado Español, discriminando a menores y personas que no tienen la nacionalidad española, así como en la ley integral de transexualidad de Euskadi. Euskadi es, de hecho, la tercera Comunidad Autónoma con más denuncias por LGTBI+fobia. La despenalización es, sin duda, un gran paso pero todavía queda camino por hacer a nivel social e institucional.

*Por todo ello, los grupos municipales presentamos la siguiente **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL** por la diversidad y la*



inklusioaren alde. Bozeramaileen Batzarrean tratatzeko. Adierazpen honen bidez, Donostiako Udalak bere gain hartzen ditu honako puntu hauetako puntua:

1.- Giza eskubideen unibertsaltasun printzipioaren aldeko gure konpromisoa adieraztea, aniztasuna sustatuz, diskriminazioa jazarriz, halakoak justifikatzeko era guztietako balio ideologiko, kultural, tradizional edo erlijiosoei egindako deiak gaitzetsiz, eta eskura ditugun bitarteko guztiak ipiniz diskriminazio hori errotik desagerrarazteko.

2.- Konprometiturik jarraitzea pertsona guztien berdintasunezko etorkizun baten aldeko borrokan, edozer dela ere pertsona horien sexu eta/edo genero nortasuna, genero adierazpena edo sexu orientazioa.

3.- Gogor gaitzestea edozer indarkeria mota, fisikoa zein hitzekoa, baita sexu orientazioan, sexu eta/edo genero nortasunean eta genero adierazpenean oinarritutako umiliazioak eta gutxiespenak ere.

4.- Hainbat urtetako Europako politika bat prestatzeko eta aplikatzeko eskatza LGTBI+ pertsonen oinarrizko eskubideak babesteko, arreta berezia eskainiko diona sexu orientazioan eta genero nortasunean oinarritutako diskriminazio anizkunari eta indarkeriari.

5.- LGTBI+ pertsonei eta pertsona horiek jasotzen duten indarkeriari buruzko datu egokiak eta alderagarriak aldian-aldian jasotzeko mekanismo formalak edukitzeko beharra aldarrakatzea, Europako Parlamentuan onartutako ebazenen ildotik, gure hiriko egoerari buruzko diagnostiko bat egin ahal izateko, eta, hala, identifikatu ahal izateko zein diren gure egiazko premiak, udal politikak haietarantz bideratu ahal izateko.

6.- LGTBI+ pertsonei errefuxiatu izateko eskubidea aitortzea, euren jatorri herriko

inclusión LGTBI+ para su tratamiento en Junta de Portavoces, en el que el Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián asume :

1.- Manifestar nuestro compromiso con el principio de la universalidad de los derechos humanos, promoviendo la diversidad, persiguiendo la discriminación, rechazando cualquier apelación a valores ideológicos, culturales, tradicionales o religiosos para justificarla y poniendo todos los medios a nuestro alcance para erradicarla.

2.- Seguir comprometidos en la lucha por un futuro en igualdad de todas las personas al margen de su identidad sexual y/o de género, expresión de género o de su orientación sexual.

3.- Condenar enérgicamente cualquier forma de violencia, incluyendo tanto la violencia física como la verbal, la humillación y el menosprecio que tenga en su origen la orientación sexual y la identidad sexual y/o de género y la expresión de género.

4.- Reclamar la elaboración y aplicación de una política europea plurianual de protección de los derechos fundamentales de las personas LGTBI que preste especial atención a la discriminación múltiple y a la violencia cuyo origen se encuentra en la orientación sexual y en la identidad de género.

5.- Reclamar, en la línea con las diferentes Resoluciones aprobadas en el seno del Parlamento Europeo, la necesidad de contar con mecanismos formales de recopilación regular de datos pertinentes y comparables sobre la situación de las personas LGTBI y de la violencia que sufren con el objetivo de realizar un diagnóstico de la situación en nuestra ciudad que nos permita identificar las necesidades reales hacia la que debemos orientar nuestras políticas.

6.- Reclamar que se reconozca el derecho a ser Refugiada a las personas LGTBI cuando



agintarien eta indarreko legeriaren jazarpena eta kriminalizazioa jasaten dituztenean.

en sus lugares de origen sean persiguidas y criminalizadas por las autoridades y legislaciones vigentes.

7.- Aitortzea zer-nolako lana egin duten eta zer-nolako lana egiten jarraitzen duten hirugarren sektoreko erakundeek, hain zuzen ere, LGTBI+ pertsonen berdintasuna, giza eskubideak eta oinarrizko eskubideak sustatzen, babesten eta defendatzen dihardutent aldetik.

7.- Reconocer la contribución, el trabajo y el esfuerzo que han realizado y que continúan realizando las organizaciones del tercer sector que trabajan en pro de la igualdad, en defensa de los derechos humanos y en la promoción y protección de los derechos fundamentales de las personas LGTBI

8.- Berresteoa Udal honen konpromisoa, sexu aniztasunaren aldeko eta sexu orientazioagatik edo genero nortasunagatik diskriminaziorik ez jasotzeko politiketan inbertitzeko premiarekin; horretarako, arreta, informazio, trebakuntza, sentsibilizazio eta kontzientziajazio proiektuak eta programak garatuz, guztia ere gure hiriak eta herriak espazio seguro izan daitezen sexu aniztasunerako, adierazpide guzietan.

8.- Ratificar el compromiso de este ayuntamiento en la necesidad de invertir en políticas en favor de la diversidad sexual y la no discriminación de las personas por su orientación sexual o identidad de género, mediante el desarrollo de programas y proyectos de atención, información, formación, sensibilización y concienciación, que hagan de nuestras ciudades y pueblos espacios seguros para la diversidad sexual en todas sus manifestaciones.

9.- Bat egiten dugu elkarteek antolatutako mobilizazioekin eta babestu egiten ditugu; halaber, dei egiten diegu herritarrei, haien ere parte har dezaten mobilizazio horietan”.

=====

9.- Nos adherimos a los diferentes programas y apoyamos las movilizaciones organizadas por las asociaciones y hacemos un llamamiento a la ciudadanía para que también participe de ellos”.

=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2019ko uztailaren 18an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 18 de julio de 2019.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V.º B.º DEL ALCALDE:**